

HERNANIK kronika

2003 urtea
Urriak 29
Asteazkena
Alea: 924
www.kronika.net



Haurrak bantzuten Udal jangelako beheko solairuan (kiroldegiko frontoi ondoan), atzo eguerdian.

Haurtzaindegia Udal jangelan jarri dute Marielutseko arazoa konpondu artean

- Obra egin berrian pitzatuak azaldu dira eta obra zuzendaritzari txostena egin dezan eskatu dio Udalak
- 10 eguneko epean txostena egin ezean Udalak egingo du txostena eta erabakiak hartu.

LEHENGOK asteazkenean Marieluts haur eskolan pitzatuak azaldu ziren paretan eta Udalak ixtea erabaki zuen, arriskutsua izan ziteke-lakoan. Asteazkenean Udaletxeko Pleno aretoan jarri zuten haurtzaindegia probisionala eta dagoneko Udal Jangelan daude, egokitzeko obrak eginda. Udal arduradunek Kronikari adierazi diotenez lehenbailehen konpondu nahi dute Marielutseko arazoa, baina, zenbat lutzuko den ez da segura.

Hamar egun

Udalak hamar eguneko epea jarri dio obra zuzendaritzari gertatutakoaren inguruko txostena egin dezan, baina, badirudi ez duela egingo. Epea bukatzean txostenik ez bada, Udalak berak egingo

du eta "hartu beharreko neurriak" hartuko ditu. Informe horrek esan beharko du zein egoeratan dagoen haurtzaindegia eta zer neurri hartu behar diren. Pitzadura horiek ateratzearren erantzukizuna norena den ere aztertzenko bidea jarriko du Udalak, Txema Mercado Hezkuntza zinegotziak Kronikari esan dioenez. Mercadok Eskola Kontseilua deitzekoa du hamar egunak pasatzean, "egoeraren berri eman eta gurasoen kezka edo zalantzak aritzeko".

Zimentazioa

Pitzadurak zerk sortu dituen oraindik ez da segurua, baina, badirudi zimentazioan egon lite-

keela arazoa. Lur azpian dagoena ez da oso sendoa eta ikusi egin beharko da zer dagoen hor, ura, fosa bat edo zer.

Berriro jangelan

Ez da haurtzaindegia Udal jangelan jartzen duten lehen aldia oraingoa. Lehengo kurtsioan ere bertan jarri zuten irailetitik otsailera, Marielutseko obrak egin artean. Udal haurtzaindegiko arduradunek Kronikari esan diotenez ahalik eta ondoena egokitutu dute jangela eta Marieluts adina erosoa ez den arren pasa moduan daude. Txarrenak gelak konpartitu beharra da arduradunen hitzetan, adin bakoitzerako gela bat ez baitago eta egundoko soinua sortzen da hain leku itxian. Udal jangelan 0-3 urte arteko 60 bat ume daude gaur egunean. □



Umeei bantzaria ematen goiko solairuan.

**TXIMELETA
OPARIAK**
Txirrita 10
943 55 23 95

**IñXASPE
Arrandegia**
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Móbil: 653 74 10 97
20120 Hernani

Hernaniko Kronikako laguntzaile izan nahi?

Urtean 30 eurogatik egunero kronika dohainik

Telefonoz hartuko dizkizugu datu guztiak:

943 330899 - 656 703814

Bonoa zeuk bete nahi baduzu, jaso leku hauetan: Conde (Urbietza), Zinkoenea, Iruretagoiena (Kale Nagusia), Kronika (Larramendi 11) eta Dobera (Larramendi 11)

HERNANI INSTITUTUA

'Gaur egungo adoleszentziaren gakoak', hitzaldia gaur

HERNANI Institutuak gurasoei eta inguruko jendeari zuzenduta hitzaldi zikloa antolatu du ikasturte berrirako. Gaur izango da lehenengo hitzaldia: *Gaur egungo nerabezaroaren gakoak*. Arratsaldeko 18:30etan Biterin. Hitzaldia Nieves Garcia Del Moral soziologoak emango du eta nahi duen guziarentzat irekia da.

Hernani Institutuak hitzaldi gehiago ere antolatzekoak baditu, seme alaben arteko komunikazioa, familia eta eskola porrotaren aurrean, autoestima eta nerabezaroa eta bestelako gaien bueltan. Institutuak dioenez, hitzaldien helburua da "gai hauei buruz ikasten joatea eta ikasleei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetzen joatea". □

Lur Kortaren ipuiak gaur liburutegian

Ipui kontalaria ariko da gaur Biteriko liburutegian. Arratsaldeko 17:30etan 3-4 urteko neska mutillentzat kontatuko ditu ipuiak eta 18:00etan 5-7 urtekoen txanda izango da. □

Balantxa itxita

BALANTXAKO etxeak botako dituztela eta Balantxako aldapa itxita egongo da ibilgailuentzat, bihar eta etzi. Zinkoneatik Karabelera Karabelgo rotondatik baino joan beharko da. □

Ezker Abertzalearen ekitaldia Iruñan

EZKER Abertzaleak deitura Ekitaldi Nazionala izango da larunbatean, Iruñako Anaitasunen, 18:00etan. Autobuserako txartelak salgai daude Garin tabernan. □



'Kutxidazu Bidea Ixabel' antzezlanean eliza lepo bete zen Ereñotzun.

Eliza gainezka zela bukatu da Ereñotzuko Kultur Astea, 'Kutxidazu Bidea Ixabel' antzezlanarekin

■ Antolatzaileek balorazio ona egin dute aurtengoak eman duenaz ■ Denean ibili da jende dezente eta arrakastarik haundieta antzerkiak izan du.

EREÑOTZUKO Kultur Astea igandean bukatu zen *Kutxidazu Bidea Ixabel* antzerkiarekin. Elizak gainezka egin zuen, auzoan inor gutxik hutsegia baitzuen eta parre algara ederrak atera zituen jendeak. 360 lagun bildu ziren eta kontrako alde bakarra izan zen denek ez zutela antzeziana nahi bezain ondo ikusteko aukerarik izan, eliza horretarako preparatua ez

dago-eta. Antzerki bera bi aldiz egin da Hernanin azken astean eta bietan sarrerak derrepente saldu dira eta jende dezente gelditu da ikusteko aukerarik gabe.

Gainerako ekitaldian ere ibili da jendea Ereñotzun eta pozik daude antolatzaileak.

Hitzaldiak interesa

Felix Zubia sendagile zarauz-

tarrak emandako hitzaldiak uste baino jende gehiago bildu zuen antolatzaileen hitzetan. Jendeak hitzaldia entzuteaz gain galdera asko egin zituen eta zenbait duda argitzeko balio izan zieten Zubiaren azalpenek. Bertso saioa, diapositiba emanaldia, sagardo eta gaztaina probaketa, eta partxis lehiaketa ere izan dituzte aurtengo Kultur Astean. □



Adin guztietako jendea pasatzen ari da Biteriko erakusketatik.

Argazki zaharren erakusketa 150 bat lagunek ikusi du dagoeneko Biteri kultur etxearen

DOBERA Euskara Elkarteak antolatuta Hernaniko argazki zaharren erakusketa dago Biteri kultur etxearen, datorren astelehenera arte. 19garren mende hasieratik Errepublikar arreko Hernaniko 70 argazki daude ikusgai, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Lehengo edifizioak

Gazte eta helduek ikusi dute orain artean erakusketa, baina, atentziorik gehien jende zaharrak jartzen du, gaztetan ezagutu zuten herria baitago argazkitan. Lehengo etxeak, fabrikak, kaleak, pertsonaiak eta abar daude eta zenbait ilu-

sio haundia egin dio argazki- etan ikusteak, Doberatik esan digitenez.

Argazki eta postalak

Erakusketen argazki zaharrekin egindako postalak daude salgai eta erakusketako argazkiak ere enkargatu litezke. □



Etxeak egiten ari dira Antziolan, Montes fabrika zegoen horretan.

Antziolako babes ofizialeko 14 etxeak adjudikatzeko irizpideak onartu ditu Plenoak

■ Etxebiden izena emanda dauden herniarren artean zozketatuko dira etxeak.

ANTZIOLAN, Montes larru fabrika zegoen horretan, babes ofizialeko 14 etxebizitzaz dijoaz, eremu erresidentzial berriaren barruan. Udalak atzo onartu zituen plenoan etxeetan sartu litezkeen jendeari eskatu beharreko baldintzak. Beharrezkoa izango da Etxebiden izena emanda egotea eta Hernanin enpadronatua egotea 2001eko urtarilaren 1a ezkerro edo aurretitik 15 urtean enpadronatua egon izana. Bi baldintza hauez gain babes ofizialeko etxeetan sar-

tzeko eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte zozketan sartuko direnek. Monteseko horretan etxebizitza asko dijoaz eta Babes ofizialekoak behar duten % 20aren parte bat dira 14 etxebizitza hauek.

2 eta 3 logelakoak

Babes ofizialeko etxeetatik 11 bi logelatakoak dira eta hiru 3 logelatakoak. 98 metro koadro ditu haundiak (balkoia kontuan hartu gabe) eta 64 metro koadro txikienak. □

OKERRAK ZUZEN

Asteleheneko Kronikak zekarkien, Pagola eta Etxeberriari egindako omenaldian, Txemari Lujanbiok eta Kepa Minerrek haritz landare bana eman zietela Joxan Pagola eta Gabino Etxeberriari. Txemari Aranburu eta Kepa Miner izan ziren haritz landareak eman zizkietenak.

ESKERTZA

Maria Pilar Zubiarain Arruti



Urriaren 16an hil zen, 81 urte zituela

Maria Pilarren Senitartekoek eskerrak ematen dizkizuegu modu batera edo bestera gurekin izan zaren guztioi, eta zuen lagunza eta babes- sa eman diguzuen denoi. Eskerrik asko.

Maria Pilarren familia

Hernanin 2003ko urriaren 29an

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48
☎ 943 551793
- Gauetan: Chucla Kardaberaz 48
☎ 943 551793